

KAROL WOJTYLA TA JOSE MARIA SETIEN

Bata, Karol Wojtyla, poloniarra ta Erromako Aita Santua. Bestea, Jose Maria Setien, cuskalduna ta Donostiako gotzaina. Biak aparteko gizonak. Jakintsuak, argiak ta «laino guztien azpitik ta sasi guztien gainetik» dabizan eleizgizonak. Gizaeskubideen defendatzaile borrokalari amorratuak ta balentriak ditugu biok, naizta batzutan ainbat kakanarru aurka jarri. «On eginaren pagua, ate ondoan palua» izaten ei da..

Urteotan bezela, aurtengo Gabonetan be erregalu eder bi egin dauskuez. Juan Pablo IIak, bere mezuan, minorien eskubi-deak ditu kontuan. Donostiako Gotzainaren mezua, Euskadin «alkarturik bakea eraikitzea zuzentasunean» izango da. Mezu biok ados datoz. Setienek bertokotu egiten dau Erromakoa.

Inork badaki esperientziz zelakoa dan gitxiengoan zoria Aita Santua dogu. Ez bere aberriaren goraberak historian zear penagarriak izan diralako, batzutan Errusiaren erpetan, bestetan mendebaleko laterrien ostikopean, baita bere pastoral-ibilialdietan begi aurrean ikusi dituelako ainbat talde etnikoen zorte trajikoa be. Ta Donostiako Gotzainak ondo baino obeto daki gure Euskalerrriaren egoera neketsua España ta Frantziaren ankapean. Ta gainera «Europako inguruncan, euskal egoerea naasmendu kultural, ekonomiko, politiko eta etikoaren credutzat artu daiteke. Orregaitik, ain zuzen, Euskalerrria gitxi-asko iluntsuak diren ainbat istilu, estrategia eta projektuaeren experi-

mentu leku biurtu daiteke». Bai Wojtyła ta bai Setienek, gizon argiak ta ausartak diranez, badakie «idiari adarretik» oratzen ta ortik euron mezuen gaurkotasuna.

Minorien eskubideak

Erri gitxiengoan egoerea munduan zear ezta bardina. Batzuen eskubideak naiko zabalak dira. Beste batzuk, ostera, bizirik irauteko be, gorriak jasaten dabez. Talde etniko askoren arazorik larriena orixe da: bizirik irautea. Talde guztien eskubiderik oinarritzakoa izatea da. Existitzea! Pertsonen antzera, erriak be izateko ta existitzeko eskubidea daukee. Pertsona bakotzak salduezinezko duintasuna ezin leike inondik be mugatu, ez kultura aldeetik ez erlijio aldetik be. Ta pertsona bakotxa ezta berez desarrollatzen, besteekin batera lortzen du bere nortasuna. Ortik sortzen dira giza-taldean eskubide sakratuak. Ta sakratuena, dudarik gabe, izatea. Eskubide au, andik ta emendik, zaindu bear da, batez be erri-agintariek ta eleiz-gizonak.

Talde ta erri minorien beste eskubide bat, euren kultura ta izkuntza ta balioak defendidu ta desarrollatzea. Or jokoan dagona auxe da: alde batetik talde orreen nortasuna ta identitatea. Bestetik gitxiengoan kultura zaindu ta onartzeak, gizatasunaren kultur aberastasuna suposatzen dau: «kulturalak eta bereziki izkuntzak pertsonen eta errien garapen betearekin lotuta estua» daukee. Gitxiengoan taldeak eskubide osoa dauke euren kultura ta historia bizi izan daberen taldeekin artuemon kulturalak izateko, naizta Estatu desberdinen erpetan bizi.

Arazo larriagoak sortzen dira olako talde gitxiengoak euren burujabetasuna edo autonomia lortzea erabakiten badabe. Orretarako alkarizketa ta negoziazioa bear bearrezkoak dira. Bestela berez sortuko dira bortxakeria ta terrorismoa errien ta taldeen artean. Urtenbide egokiak ez dira inoiz be mesprezatu bear, au da, alkarizketa ta negoziazioa.

Minorien betebeharrak

Gizartean eskubideak ta betebeharrak lotuta dagoz. Gitxiengoan betebeharrak bat, gizarte osoaren onerako lan egitea

izango da Orretarako talde bakotzak bere kultur aberastasuna gizarte osoaren onerako kontuan arturik. Beste modu batera errien arteko solidaritatea eskatzen jake gitxiengoci be.

Talde minoritarioek euren taldeekin eskubideak errespetatu bear dabez, naizta euren arteko baten batzuk geiengoan kulturara pasatzea erabaki. Ta ez ori egin dabelako inor judastzat artu.

Inoiz begi bistatik kendu ezinezko betebeharra beste au be bada. Historiaren eboluzioa ta martxa. Gauza bakotzak bere garaia du. Pertsonen ta errien alderdi historikoa ta dinamikoa kontuan izan ezik, kaltegarri biurtzen da gitxiengoan egoera. «Bizitza egiten ari da etengabe eta, erri edota alkarte baten bizitza bakan oinarriturik eraiki nai bada, zuzentasuna be egin bearko da etengabe. egoera barrici begira; izan ere, etengabe eraikitzen joan bear dogu etorkizuna, bakoitzaren eta jendetzaren arrazoia- ren aleginez» (Setien).

Euskal arazoa

Donostiako Gotzaina ez dabil lañutan. Badaki zein dan gure erriaren arazo aundiena ta latzena: «berbera izateko eta berantzat egokiak izango diren erakundeak sortzeko eskubidea egintzara eronez, orrela sorburuko errealitate politiko izateko borondatea eta eskubidea azur-mamitu dagian. Ori izan bear dau autodeterminazioaren egiazko esanaik. Baina autodeterminazioa ez dago derrigorrez etenduraren ikuspegitik begiratu bearrrik. Bere elburu ekonomiko, sozial eta kulturalak finkatzeko gai izango dan Erria, eta bere historian zear bere gain artu dabezan solidaritzak bizitzeko ere gai izango dana». Auxe da, ain zuzen, Setienen iritxia ta argi azaldu dau bai «Club Siglo XXI», bai ETBn ta bai Gabonetako mezuan be.

Euskal arazoa konpontzeko, Donostiako Gotzainak diñoa- nez, «bearrezko ikusten da gizarte projektu orokor batera iristea, gizartearen geiengoak onartu daikena. Gizarteak geuregun onartzen duen projektuari bat izateak ez dau esan nai bein beti- koa danik, ezta erabarritu ezinik ere». Projektu orretan Euskale- rriko indar guztiak artu bear leuke parte, ez bakarrik indar poli-

tikuak. Errealismoz beteriko projektua, naizta «oso zaila izan giza adimenentzat, ezinezkoa ez bada, errealitatea erabat ezagutzea, eta beronen ulerkuntzara leialtasunez eta interesik barik urbiltzea». Labur esanda, «gaurko egunari egokituko jakon projektua izan bear dau eta ez bein betikoa».

Kristau errealismoa

Bai Erromako mezua ta bai Donostiakoa, biak kristau errealismoz beterik daukaguz. Karol Wójtyła ta Jose Maria Seticn ez bakarrik gizon argiak baita kristau sakonak be badira. Biok Jaungoikuarengan ta gizonarengan sinismen sendoa erakusten dabe. Errealismo sano orren irakaspen ederrenetariko batzuk ona emen: «Jaungoikoaren Semea gizon egin zanaren azkenengo egian, ezer erakusten badau zera da: batetik, kristau errealismoaren irakasbide ederra, eta bestetik, Jainkoaren borondatea, bere salbamena gizonarengana, bere jokabide oker eta zuzenez, bere lorpen eta ustematez». Beste printzipio bat be aurrean dauke: «Gizakian ez gagozala alkarren artean borrokan bizitzeko eginak borrokak zuritzeko mila arrazoi billatzen baditugu ere». Ta ori ez balitzake naiko, fededunoi beste printzipio au be gogoratzen daukue: «Jaungoikua gizon guztion Aita izanik, gu guztiok seride gisa bakean bizitzea nai dauala sinestetik datorrigun eragina».

Errealismoz inguraturiko itxaropen izpiak non-nai ageri dira. Ni neu onegaz geratzen naz «zorionekoak, bakearen alde egiaz lan egin nai dabenen aleginak gitxiesten ez dabezanak, naizta lorpenak guztiok naiko genduzan elmugarik desiragarrietara ez iritxi».

A. Olea